



**2023KO ABENDUAREN 14KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko abenduaren hamalauan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2023ko azaroaren 23an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**III.- ALKATETZAZ ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.-**

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako kreditu gehigarri bidezko 7. kreditu aldaketaren eta transferentzia bidezko 2. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**IV.- PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-**

Jarraian, Osoko Bilkuran aurkeztu dira bere onarpenerako 2024ko Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.



Berez, aurrekontuari lotutako dokumentuak dira eta 2023ko azaroaren 23ko Osoko Bilkuran aurkeztu behar ziren bere onarpenerako, 2024ko aurrekontuarekin batera. Baina akats bat zela medio, ez zen hala egin eta horregatik aurkeztu dira gaurko bilkuran.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek azertu ondoren, aho batez, onartu egin ditu.

## V.- UDAL ZERGA ETA TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA ETA 2024 URTERAKO DEIALDIA.-

Udal zergak eta tasak ordaintzeko laguntzen arautegia aldatzea planteatzen da. Aldaketak hauen ostean, testua honela geldituko litzateke:

### “UDAL ZERGA ETA TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA

#### I. KAPITULUA

##### XEDAPEN OROKORRAK

###### *1. artikulua. Helburua.*

Ordenantza honen helburua zera da:

1.1. Ohiko etxebizitzako ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHGZ), ura, estolderia, nahiz zabor-tasak sortzen duten karga ekono-mikoa murrizteko edota deuseztatzeko zerbitzuko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea.

1.2. Ezintasuna edo mendekotasuna duten pertsonen, irisgarritasun-obrak egiten direnean instalazio eta obren gaineko zerga dela-eta, ordaindu beharreko zenbatekoari laguntza ematea.

1.3. Familia ugariak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoari laguntza ematea.

1.4. Joxemiel Barandiaran udal kiroldegiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.

1.5. Kultura eta denbora libreko ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.

###### *2. artikulua. Ezarpen-esparrua.*

Ordenantza hau, Lazkaoko Udalerrian erroldatuta egonik, laguntzak emateko baldintzak betetzen dituzten pertsonen aplikatuko zaie.

#### II. KAPITULUA



FUNTZIONAMENDU-ARAUAK



*3. artikulua.*

Laguntza hauek jaso ahal izateko diru-sarrerren baldintzak, urteari dagozkion ordenantza fiskalen aldaketetan jasotakoak izango dira eta ordenantza honen I Eranskin gisa agertzen da.

Laguntza, eskatutako tasei dagozkien ekitaldi ekonomikoan zehar izandako diru-sarrerak zenbatuko dira.

Diru-sarrera izaera izango duten kontzeptuak, ondorengoak izango dira:

- a) Norbere kontura edota besteren kontura lan eginda lortutako hileko diru-sarrera garbiak.
- b) Edozein motatako pentsio edo prestazioen bitartez jasotako hileko diru-sarrerak.
- c) Kapital higikorren bitartez lortuak:

Eskatzaileak, berak edo elkarrekin bizi diren partaideek banku edo aurrezki-kutxetan irekita dituzten kontu korrante edo libretetan dituzten kapitalen frogagiriak ekarri beharko ditu.

Diru-laguntza hauek emateko kapitalaren gehienezko muga, urtero argitaratzen den sarrerren taulan finkatutako sarrerren gehienezkoa izango da, sortutako sarrera garbia edozein izanda ere.

Hileroko diru-sarrera garbi gisa, onuradunak eta/ edo elkarrekin bizi direnen unitateak dituen kapital guztien etekin garbia hartuko da, ekitaldi horretako diruaren interes ofizialaren arabera. Interes-tasa urtero berrikusiko da.

Elkarrekin bizi direnen unitateak eskura dituen titulu, balore eta gisako guztiei tratamendu bera emango zaie.

Elkarrekin bizi direnen unitateko pertsona bakoitzeko lehenengo 3.000 €ak ez dira kontuan hartuko.

- d) Ondasun higiezinak:

Sortzen dituzten etekin garbiak diru-sarrera gisa hartuko dira: elkarrekin bizi direnen unitatearen bigarren etxebizitza, aretoak, garajeak, lursailak, etab. Kasu honetan, azken bost urteetan izandako ondasunen eskualdaketak hartuko dira kontuan.

Ondasun horiek etekinik eman ez dutenean, urteko diru-sarrera garbi gisa, katastroko balioaren %10a hartuko da.



Laguntzaren eskatzailea bakarrik bizi baldin bada, bere diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan baina osotasunean.

#### 4. artikulua.

Eskaera-inprimakiarekin batera eta izapidetzeko ezinbesteko baldintza legez, egoera ekonomikoa, pertsonala eta elkarrekin bizi direnena kreditatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

Laguntza hauen helburu diren 1.1, 1.2 etaz 1.3 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako:

Eskatzailearen eta elkarrekin bizi direnen pertsonen unitateko gainerako partaideen NAREN fotokopiak.

- a) Elkarrekin bizi direnen unitatea osatzen duten partaide guztiek dagokion epealdian jasotako hileko diru-sarrera garbien ziurtagiriak (10-T, nominak, pentsio-agiriak, etab.).
- b) LANBIDEk/SEPEk luzatutako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasua bada jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena.
- c) Ikasleen kasuan, ikasten ari direnaren frogagiria.
- d) Elkarrekin bizi direnen unitateak duen ondareari buruzko aitortpen zinegina. Eredua laguntza-eskaerarekin batera emango da.
- e) Aurreko urteko tasaren ordainagiria.
- f) Eskatzaileari eraikineko fakturan dagokion kontsumo-zatiaren agiria. Eredua eskaerarekin batera emango da.
- g) Elkarrekin bizi direnen unitateak duen kapitalaren frogagiria edo ziurtagiria.
- h) Ordainagiriaren zenbatekoa ordainduko den kontuaren 20 zifrako zenbakia.
- i) Eskatzaileak sinatutako dokumentua, bertan, Udalari ondasun-ziurtagiria eskatzeko baimena emanez eta azken bost urteetan ez eskatzailearen izenean eta ezta elkarrekin bizi direnen unitatekoen izenean ere ondasun-eskualdakatarik ez egin izana ziurtatuz.

Laguntza hauen helburu diren 1.4 etaz 1.5 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako:

- a) Eskatzailearen eta elkarrekin bizi direnen pertsonen unitateko gainerako partaideen NAREN fotokopiak.



LAZKAOKO  
UDALA



- b) Elkarrekin bizi direnen unitatea osatzen duten partaide guztiek eskaera datan azken lau hilabetetan (eskaera hilabetea barne) jasotako hileko diru-sarrera garbien ziurtagiriak (nominak, pentsio-agiriak, etab.).
- c) LANBIDEK/SEPEK luzatutako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasua bada jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena.
- d) Ikasleen kasuan, ikasten ari direnaren frogagiria.
- e) Elkarrekin bizi direnen unitateak duen ondareari buruzko aitorten zinegina. Eredua laguntza-eskaerarekin batera emango da.
- f) Elkarrekin bizi direnen unitateak duen kapitalaren frogagiria edo ziurtagiria.
- g) Ordainagiriaren zenbatekoa ordainduko den kontuaren 20 zifrako zenbakia.
- h) Eskatzaileak sinatutako dokumentua, bertan, Udalari ondasun-ziurtagiria eskatzeko baimena emanaz eta azken bost urteetan ez eskatzailearen izenean eta ezta elkarrekin bizi direnen unitatekoen izenean ere ondasun-eskualdaketarik ez egin izana ziurtatuz.
- i) Eskatzaileak sinatutako dokumentua, bertan, elkarrekin bizi diren unitateko edozeinen egoera ekonomikoa aldatzen bada honen berri Udalari jakin araziko diela ziurtatuz.

39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak zuzenean kontsultatuko du, pertsona edo erakunde interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Zehazki, datu hauek kontsultatuko dira:

- Errenta maila (PFEZ)
- Ondare maila
- Kontu maila
- Azken 4 urtetako OHGZ

#### *5. artikulua.*

Aurkeztutako dokumentuak, udal-administrazioak egiaztatu eta berrikus ditzake eta interesatuari dokumentu horietan azal-tzen diren datuen argitasunak edota osagarriak ere eska dakizkioke.

#### *6. artikulua.*

Eskaerak aurkezteko epea dagokion deialdian zehaztuko da. Deialdi hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki ohoan argitara emango da.

Ezarritako epez kanpo egindako eskaera oro, baztertua izango da.



#### *7. artikulua.*

Laguntza-eskaeren espedienteak aztertuta, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Sanitate Batzordea izango da laguntzak eman ala ez eman proposatuko duena, Gobernu Batzordearen akordio bidez erabakiko da eta interesatuei hartutako erabakiaren berri emango zaie.

#### *8. artikulua.*

Emandako laguntzak gauzatzeko, OHGZ zergaren, eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren, uraren, estolderiaren, zaborren, kiroldegiko bazkidetzen eta jardueren (eguneko sarrera ezik), kultur ikastaroen eta aisialdiko jardueren tasen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Gai hauetan udal-laguntza lortzeak ez du libratzen onuraduna hurrengo ekitaldietan berriz ere laguntza-eskaera egitetik eta beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztetik, baldin eta laguntza hau eskatu nahiko balu.

#### *9. artikulua.*

Datuak ezkutatzeak edota ordenantza honetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

#### *10. artikulua.*

Uraren eta estolderiaren tasen laguntzei dagokienean, inongo arrazoi logikorik gabe neurri kanpoko ur-kontsumoa egitea, laguntza-eskaera baztertzeko arrazoi izan daiteke.

Pertsona eta lauhilabeteko 15 m<sup>3</sup>ko muga finkatzen da.

#### *11. artikulua.*

Ezintasuna edo menpekotasuna duten pertsonak ere, bizi diren etxebizitza-eraikinetan irisgarritasun obrak egiten dituztenean, laguntzak lortzeko aukera izango dute. Laguntza hau eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren kontzeptuan Udalari ordaindutakoaren % 90a bider bere eraikin-partaidetza kuotatik ateratako emaitza izango da.

#### *12. artikulua.*

Familia ugariak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko laguntza eskuratu ahal izango dute.

- Diru sarrerak ≤ 40.700,00 € % 75eko laguntza.
- Diru sarrerak ≤ 51.700,00 € % 50eko laguntza.

14 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuei soilik aplikatuko zaie.

Familia bakoitzeko ibilgailu bakarrari emango zaio laguntza.

#### *13. artikulua.*





Kirol eta kultur arloko bazkidetzei eta jardueri dagokienean, diru laguntza eskaera gehie-  
nez ere dagokion tasaren ordainketa egin den egunetik 15 laneguneko epean egin beharko  
da, ondoren dokumentazioa osatzeko beste 10 laneguneko epea izango delarik. Epe horie-  
tatik kanpo ez da eskaerarik onartuko.

Era berean, eskaerak ez du atzeraeraginik izango.

*14. artikulua.*

Kirol eta kultur arloko ikastaroei dagokienean, onuradunen ikastaroetarako asistentzia  
gainbegiratu da, eta hileroko asistentzia maila ezingo da %50ekoa baina txikiagoa izan  
(justifikatu gabe).

Gutxieneko maila betetzen ez den kasuan, onuradunak jasotako diru laguntza itzuli egin  
beharko du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

*15. artikulua.*

Ordenantza honetan jaso ez diren arlo guztietarako edota bertan aurreikusi ez arren aur-  
kez daitezkeen kasu berezi guztietarako, Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Sanitate Batzordeak  
ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean komenigarriak irizten dituen neurriak proposa-  
tzeko.

AZKEN XEDAPENA

*16. artikulua.*

Ordenantza hau 2001ko urriaren 25ean onartu zen hasiera batean, eta azken aldaketa  
2023ko abenduaren 14an onartu zen.

1 ERANSKINA

Urteko diru-sarreraren baldintzak:  
Hileko soldata maila: Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) konparatuta.

	LGS	LGS +40 %	LGS +60 %	LGS +80 %	LGS +100 %	LGS +120 %	LGS +140 %	LGS +160 %	LGS +170 %
kide 1	100 %	75 %	50 %	-----	-----	-----	-----	-----	-----
2 kide	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-----	-----	-----	-----
3 kide	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-----	-----
4 kide	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %

\* 5 kide edo 5 kidetik gorako familiek %100 hoberia izango dute, baldin eta familia ho-  
rretako diru sarrera urtean 40.700 € baino gehiago ez bada.



\* 5 kide edo 5 kidetik gorako familiek % 50 hoberia izango dute, baldin eta familia ho-  
rretako diru sarrera urtean 51.700 € baino gehiago ez bada.

- \* 3 edo 4 kideetako familietan, 21 urtetik gora kide bakarra denean, familiak beste kide bat gehiago izango balu bezala kontatuko da."

Bestalde, 2024rako Udal zerga eta tasen arloan laguntzak emateko deialdia ere aurkeztu da bere onarpenerako. Honakoak dira deialdi honen puntu nagusiak:

- Deialdi honetan emango diren diru laguntzen zenbatekoa guztira 23.000 eurotako izango da, eta hauek 2024. urterako 1.480.03.231.00 zenbakidun partidatik ordainduko dira.
- Eskariak aurkezteko epea:
  - Laguntza hauen helburu diren 1.1, 1.2 etaz 1.3 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako: 2024ko martxoaren 10etik 25era.
  - Laguntza hauen helburu diren 1.4 etaz 1.5 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako: 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Hau honela, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenaren eta bere espedientean jasotzen den dokumentazioaren arabera udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko arautegiaren aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lan balduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikoa bihurtuzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.
4. 2024ko Udal zerga eta tasen dirulaguntzak emateko deialdia onartzea.

#### VI.- ITURGAITZAGAKO 4 E.L. BESTERENTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udala eta "Lazkao Lantzen SA" udal-sozietate publikoa, hurrenez hurren, 4 E.L. (Emaitzako Lursaila) bizitegirako lurzati eraikigarriaren %14,825eko eta %85,175eko partaidetza zatiezinen jabeak dira. Lursail hori Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako ITURGAITZAGA 6. hirigintza-jarduerarako eremuan dago, eta lurzati horretan etxebizitzak, garajeak eta eranskinak eraiki ahal izango dira.

Lizitaziora 4 E.L. osoa aterako da. Lazkao Lantzen S.A.ren administrazio kontseilurak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran onartu du, gaur Osoko Bilkura honetara onarpenera jarri den baldintza plegua.



Esleipena arautuko duten prezioak edo tasak honako hauek izango dira:





- PR - 4 lursailaren gutxieneko salmenta-prezioa, gorantz hobetu daitekeena: BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU euro (594.594,00 €). Kontzeptu horrengatik esleipenean ateratzen den zenbatekoari dagokion BEZa gehituko zaio.
- PR - 4 lursaila besterentzearen prezioaren ondoriozko zenbatekoak ez du urbanizazio-kargarik, eta lizitatzen den PR - 4 lurzatiari dagozkion eremua betetzeko geratzen diren kargak, saltzaileek ordainduko dituzte.
- 2014an Lazkao Lantzen S.A.k 4 E.L.ko partaidetza zati bat trukaketa bidez eskuratu zuen, eta trukean 3. solairuan kokatutako 70 - 72 m<sup>2</sup>ko etxebizitza bat eta soto solairuan kokatutako 15 - 16 m<sup>2</sup>ko garaje bat ematera behartu zen. Truke eskrituran etxebizitza eta garaje horrentzako finkatutako balioa EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimo (192.337,50 €) da. Horrengatik esleipendun suertatzen denak, Lazkaoko Udalak adierazitako pertsonen lehen zehaztu diren ezaugarrietako etxebizitza eta garajea besterendu beharko dizkie eta besterentze eskritura hori egiterakoan Lazkao Lantzen S.A.k sustaizale esleipendunari aipatutako zenbateko hori ordainduko dio.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ados daudela.

Hau guztia honela, eta ogasun batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Iturgaitzagako 4 E.L. besterentzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia hirugarren aldiz egitea erabaki du.

#### VII.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 16. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztagiria egin dute.

Hamaseigarren obra egiaztagiria HIRUROGEI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMOKoa (60.536,57 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman dio ziurtagiri honi.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, egiten ari diren moduarekin ez daudelako ados.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botoirik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.

## VIII.- PENTSIOEN INGURUAN EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAK ETA EAJ-PNV-K AURKEZTUTAKO MOZIOAK.-

Patxi Madariaga Irastorzak, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko ordezkari gisa, 2023ko azaroaren 7an Udalaren erregistroan aurkeztutako mozioa irakurri du. Honako dio:

### **"Gutxienerako pentsioa 1080. EHPMren mozioa**

EHPMk (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du Lazkaoko Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.

Idazki honekin batera doakizu Fusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari horrekin hasten da:

"EHPM-MPEHK egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxienerako pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxienerako pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxienerako pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu."

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxienerako diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxienerako pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errealizatzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: "... egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxienerako pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata gerortuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxienerako pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxienerako Pentsioan LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea."

Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponenzialaren testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko dituzten beharrak arintzeko, etab. Gaur egun EAEn, 167.718 pentsiodu-



nek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.

Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonak ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

Horregatik, Lazkaoko udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:

1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2023ko Abenduaren 14an egun honetan."

Jarraian, Naldaiz zinegotziak, EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa irakurtzeari ekin dio. Honakoa dio:

### **"Pentsioen inguruan Lazkaoko udaleko EAJ-PNV udal taldearen mozio-eskaera**

Lazkaoko Udalari ondorengoak adostea eskatzen diogu:

1. Estatuko Gobernuari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 1ean gehiengo zabal batez adostu zuen akordioan xedatutakoari erantzunez, pentsio sistema nahiko eta jasangarria bermatzea, elkartasunean eta gardentasunean oinarrituta, pentsio duina jasotzeko eskubidea betez eta egiazko finantzaketa iturriak direla medio pentsio duin eta aurreikusgarriak ematen direla bermatuz.
2. Estatuko Gobernuari eskatzea gutxieneko pentsioa duintzeko esfortzua egin dezala sistema elikatzeko diru sarrerak handitzera bideratutako neurriak hartuz, sistemaren beraren gastuetan eraginez eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata erreferentziatuz hartuz.
3. Estatuko Gobernuari eskatzea, lehen puntuan aipatzen den akordioa gogoan eta Euskadiko pentsiodunen egoera hobetzera begira ezinbestean bete behar den baldintza dela aintzat hartuz, urratsak ematen has dadila Segurantza Sozialaren eskuduntzak Euskadiko erakundeei transferitzeko, Gernikako Estatutuaren 3/1979 lege Organikoaren 18.2. artikuluan eta Aldi baterako 5. Xedapenean jasotzen denarekin ados.



4. Eusko Jaurlaritzari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22an gehiengo zabal batez onetsi zuen Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearekin ados, pentsiorik baxuenak osatzen jarrai dezala hiritargoaren bizi baldintza duinei eusteko eta prestazio hau Europako estandarretara egokituta dagoela bermatuz.
5. Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari ezagutzera ematea Udal honetan adostu den akordioa.”

Alkateak bere ikuspuntua azaldu du, eta honako galdera hau luzatu du: zergatik 1.080 €-ko kopurua? Azken urteetan inflazio maila altuagoak ezagutu ditugula dio, baina 1.080 €-ko aldarrikapen hau ez dela aldatu. Honek ez duela balizko gutxieneko pentsioen erosketa ahalmena bermatzen. Gai honetan, estatua dela arduradun eta erantzule bakarra, eskumena estatuarena dela. Zertara dator orduan mozio honen bitartez ardura eta eskaera euskal instituzioetan ipintzea? EAJ-ren konpromisoa zein den garbi dagoela.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea Udal gobernua jarri al den mozia aurkeztu duten eragileekin harremanetan mozio bakarra adosteko. Alkatearen ezezko erantzunaren aurrean, Ormazabalek dio errespetu falta iruditzen zaiola eragile batek mozio bat aurkeztu eta honi erantzun beharrean, beste mozio batekin erantzutea. Pentsiodunen mozioari baiezkoa emateko arrazoiak azaldu ditu.

Gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, bi mozioak banan-banan bozkatu dituzte.

Lehenbizi EHPMk aurkeztutako mozia bozkatu dute, eta aldeko 6 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 7 botorekin (EAJ-PNV), mozia baztertu dute.


Azkenik EAJ-PNVk aurkeztutako mozia bozkatu dute eta aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 6 botorekin (EH Bildu), mozia onartu dute.

#### IX.- GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Jendartetik galdera bat luzatu dute. Alkateak erantzun du.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO  
UDALA